

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

264/2020 Foru Agindua, urriaren 30ekoa. Interes publikokotzat jotzea Barrundiako lurzoru urbanizaezinean, Eturako 3 poligonoko 50 zenbakiko lurzatian, Aldaia mendiko komunikazio dorrea ordezteko Itelazpi SAK sustatutako proiektua

2020ko uztailaren 20an, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean sartu da Barrundiako Udaleko idazkariak igorritako komunikazio bat, zeinean ondoko hau adierazten baita:

Itelazpi SA Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazio sozietate publikoak 2019ko otsailaren 25ean obra lizentzia eskaera aurkeztu zion Barrundiako Udalari, Aldaia mendiko komunikazio dorrea, udalerrri horretako lurzoru ez urbanizagarrian, Etura herriko 3 poligonoko 50 zk.ko lurzatian kokatua, ordezteko. Itelazpi kudeatzen duela komunikazio dorre hori, zeinak zerbitzu hauek ematen baititu: TDT lurreko telebista digitalaren zabalkundea, 112 larrialdi zerbitzuentzako (anbulantziak, Ertzaintza, suhiltzaileak etab.) garrantzi handieneko komunikazioak eta telefonia mugikorreko eragileen beste komunikazio batzuk (3G, 4G eta 5G) Barrundiako herrietako biztanleentzat (Ozeta, Ermua, Etura eta Larrea). Adierazten du oraingo dorrea, 19 metro garaia, bere esfortzu kargaren mugaren gainetik dagoela eta, horregatik, 40 metroko dorre batez ordezteko proiektu ontzat emana aurkezten du.

Udalbatzak, 2019ko urriaren 10ean egindako bilkuran, erabaki du ezestea Aldaia mendiko komunikazio azpiegituraren onura publikoa edo gizarte interesa adierazteko prozedurari hasiera emateko Itelazpi SAK egindako eskaera, eta sozietateari eskatu dio beharrezko dokumentazioa aurkez dezala, egiten duen jarduera legeztatzeko. Ezeste erabaki horren aurka Itelazpi SAK berraztertze errekurtsoa aurkeztu du, dokumentazioa eta espedientean jasotako alegazioak aurkeztuz, eta aurtengo ekainaren 15ean Barrundiako Udalak erabaki du errekurtso hori bere osoan baiestea eta baieztu txostena ematea aurkeztutako eskaeraz, hura izapidetuz Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailean.

Komunikazio dorrea dagoen lursaila ES2110016 Aldaia Mendiak izeneko KBEn barruan dago. Espedientean jasota dago Natura Ondarearen Zerbitzuak 2019ko abuztuaren 1ean emandako baieztu txostena, bertan jasotzen diren prebentzio eta zuzentze neurriak betetzeko baldintzapean.

Udalak bidalitako dokumentazioan agertzen da, halaber, Itelazpi azpiegitura proiektu bat aurkeztu duela dorrearen garaiera 40 metrotik 30 metrora murrizten duena, antena euskarriaren egituraren ziurtagiri bat eta komunikazio zentroaren igorpen erradioelektrikoei buruzko neurriak aurkeztu dituela, eta instalazioak 2017ko azaroko jarduera lizentzia duela.

Barrundiako Udalak hartutako erabakiaren edukia kontuan hartuz, izapidetu behar da proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari eskaeraren berri eman zaie, kasuan kasuko informazio ondorioetarako.

Indarrean dauden udalerriko plangintzako arau subsidiarioetan xedatutakoarekin bat etorritik, 3 poligonoko 50 zk.ko lurzatia, non baitago komunikazio dorrea, "2 zona. Basoak Babesteko Zona" bezala kalifikatutako lurzoru urbanizaezinean dago eta, 201. artikuluan ("Zona bakoitzean baimendutako erabilerak eta jarduerak") ezarritakoaren arabera, zona horretan baimenduta daude "onura publikoko eta gizarte intereseko eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak, baso

ingurunean kokatu behar direnak egiten dituzten jarduerak halakoak direlako ezen lur hartzaileari ezinbestean loturik egon behar baitira zientzia, topografia, basogintza nahiz energia arazoien-gatik edo antzeko beste edozeinengatik”.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Irailaren 9ko 204/2020 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespena ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2020ko irailaren 23ko ALHAOn (108. zenbakia) argitaratu zen, eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu hartarako eman zen epean.

Aztertutako kasuaren interes publikoari dagokionez, Telekomunikazioen maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorra aplikatu behar da, zeinaren 2. artikulua hau ezartzen baitu: “Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira”; eta 3.c artikulua beste hau, legearen helburu eta printzipioei dagokienez: “Komunikazio elektronikoen sareak zabaltzea eta zerbitzuak ematea sustatzea, mutur batetik bestera konektibitate eta interoperabilitatea sustatuta, bai eta sarbidea ere, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan”.

Aipatutako lege horrek bere III. tituluaren (Zerbitzu publikoaren betebeharrak eta eskubide zein betebeharrak publikoak, komunikazio elektronikoen sareak ustiatzean eta zerbitzuak ematean), II. kapituluko 2. atalean, “Komunikazio elektronikoen sare publikoak hedatzeari eragiten dion herri administrazioen araudia” epigrafearen pean, hau xedatzen du 34.2. artikuluan: “Komunikazio elektronikorako sare publikoak oinarrizko ekipamenduak dira (...). Haiek jartzea eta hedatzea interes orokorreko obrak dira”.

Era berean, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorra aplikatu behar da. Lege horren 22. artikulua honako hau ezartzen du: “Interes orokorreko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen araubide juridikoa.

1. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzu irrati bidezkoak, telebista bidezkoak eta atxikiak eta elkarrekintzazkoak interes orokorreko zerbitzu dira, eta ideiak askatasunez komunikatzeko eskubidea, informazioa komunikatzeko eta jasotzeko eskubidea, bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko eskubidea eta empresa askatasunerako eskubidea baliatuz ematen dira, eta berdintasuna, aniztasuna eta balio demokratikoak sustatuz (...)”

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan, proiektuan adierazten den bezala.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikokotzat jotzea Barrundiako lurzoru urbanizaezinean, Eturako 3 poligonoko 50 zenbakiko lurzatian, instalatuta dagoen Aldaia mendiko komunikazio dorrea ordeztzeko Itelazpi SAK sustatutako proiektua, bat etorritz Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren baimen egokia lortzeko beharra, eta ez du aurretik juzgatzen udalak eman behar duen ebazpenaren edukia.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 30a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO